

DIETA BIDEZKO FITOESTROGENOAK SINTOMA MENOPAUSIKOAK BARETZEKO

GRADU AMAIERAKO LANA. LITERATURAREN BERRIKUSKETA KRITIKOA.



Egilea: Elur Zarraga Longarai

Data: 2024-04-26

Zuzendaria: Irati Padura Blanco

Hitz-kopurua: 6.673

**Gasteizko Erizaintza Unibertsitate-Eskola
2023-2024**

AURKIBIDEA

SARRERA..... 3

MARKO TEORIKOA ETA JUSTIFIKAZIOA..... 4

HELBURUA..... 9

METODOLOGIA:..... 10

 Diseinu mota:..... 10

 Bilaketa estrategia:..... 10

 Barneratze irizpideak..... 10

 Kanporatze irizpideak..... 11

 Literaturaren hautaketa kritikoa:..... 11

 Artikuluaren analisia:..... 11

EMAITZAK ETA EZTABAIDA..... 12

 • Beroaldietan..... 13

 • Sintoma genitourinarioetan..... 15

 • Osteoporosian..... 16

 • Loaren asalduretan..... 17

 • Antsietatean..... 19

ONDORIOAK..... 21

MUGAPENAK..... 23

BIBLIOGRAFIA:..... 25

ERANSKINAK:..... 29

SARRERA

Marko teorikoa eta justifikazioa: Menopausia Aztertze Espainiako Elkarteak (AEEM), diagnostikoa azken hilekoa ematen denetik 12 hilabete baino gehiago igarotzean zehazten duen arren, ez da bat-batean gertatzen eta garai ezberdinak ditugu: perimenopausia, menopausia eta postmenopausia. Prozesuak sintoma ezberdinak dakartza: berehalakoak, epe ertainekoak eta epe luzekoak. Agerpena faktore desberdinek eragiten dute (arraza, dieta, kirola, bizi estiloa), baina egia da zenbaitek prebalentzia handiagoa dutela: osteoporosia, sintoma genitourinarioak, antsietatea, beroaldiak eta loaren nahasmendua. Tratamendurik erabiliena hormona bidezko terapia ordezkatzailerak (HT) den arren, eragiten dituen albo-ondorioengatik, emakume askok uko egiten diote beste alternatiba batzuk bilatuz; fitoestrogenoak.

Helburua: Literaturaren berrikusketa kritiko honen helburua dieta bidezko fitoestrogenoen eraginkortasuna zehaztea da, klimaterioan ematen diren beroaldiak, osteoporosia, antsietatea, sintoma genitourinarioak eta loaren asaldura baretzeko.

Metodologia: Bilaketa ekuazioak hainbat datu-baseetan erabili dira AND/OR boleanoak erabiliz: Medline OVID, TripPRO, Cochrane, Cinahl, EMBASE, WOS, eta CUIDEN datu-baseetan egin dira bilaketak. Eskuzko bilaketa ere burutu da, *RNAO*, *NICE*, *American Journal of Obstetrics and Gynecology*, *BMC* eta *Enfermería Clínica* aldizkarietan. Horrela 2015-2023 bitarte argitaratutako 14 agiri eskuratu dira proposatutako helburuari erantzuna emateko.

Emaitzak eta eztabaida: Sintoma bakoitza kategoria gisa definitu eta dieta bidezko fitoestrogenoek sintoma menopausikoetan duten eragina frogatu da literaturan aurkitutako 4 eskala ezberdinen bidez. Zehazki, 14 ausazko entsegu kliniko erabili dira, horietako bat ikerketa pilotoa izanik. Hauek, dieta bidez fitoestrogenoak kontsumitzea, ez kontsumitzearekin alderatzen dute modu ezberdinetan; soja esnea, soja, liho haziak, barritak/bizkotxo forman... Interbentzioek orokorrean, osteoporosian, beroaldietan, sintoma urogenitaletan, loezinean eta antsietatean hobekuntza esanguratsuak eragiten ditu.

Ondorioak eta mugapenak: Dietan fitoestrogenoak kontsumituz sintoma menopausikoek baretzea ematen den arren, ebidentzia maila esanguratsua duten ikerketa gehiago behar dira: interbentzio bateratu baten bitartez, neurketa tresna espezifiko batekin eta lagin esanguratsua batekin, emaitzak orokortuak izan daitezkeen.

Hitz gakoak: *Menopause*, *Climacteric*, *Phytoestrogen*, *Soy Food*, *Diet Vegetarian*, *Soybeans*, *Eating*, *Female Urogenital Disease*, *Hot Flash*, *Sleep Wake Disorder*, *Anxiety* eta *Osteoporosis*

MARKO TEORIKOA ETA JUSTIFIKAZIOA

Menopausia Aztertzeke Espainiako Elkarteak (Asociación Española para el Estudio de la Menopausia, AEEM), diagnostikoa azken hilekotik 12 hilabete baino gehiago igarotzen direnean zehazten du. Izan ere, folikuluen galera progresiboa eta obulutegiko estrogenoen jariorik eza gauzatzen dira. Hala ere, obulutegiko jardueraren etete progresiboa, menarriak baldintzatzen du. Are gehiago, garai klimaterikoaren barnean, zehazki (aldi emankorretik ez emankorrerako prozesua), perimenopausia, menopausia eta postmenopausia barnebiltzen dira¹.

Trantsizio menopausikoa, edo **perimenopausia**, menstruazio irregularrekin hasi eta azken hilekora arte irauten duen aldi definitua da, ugal-hormonetan gertatzen diren fluktuazioekin jarraitzen dena (FSH serikoaren handiagotzea). Garai hau hilekoaren irregulartasunak ezaugarritzen du, menstruazio luze eta astunekin, askotan sintomatologia espezifikoarekin akonpainatuta dagoena, sintoma menopausikoak, alegia¹. Soilik emakumeen %10ak igarotzen du sintomatologiarik gabeko/sintomatologia arineko klimateria². Orokorrean, Espainiar Estatuan perimenopausia 47-48 urteetan agertzen da batzuek bestean, 2-5 urteko iraupena duelarik¹.

Menopausia izatez, emakumeen aldi emankorraren amaiera markatzen duen gertakaria da, trantsizio aldia, alegia. Funtzio obarikoaren eta hormonien fluktuazioarekin ezaugarritzen dena². Aipatu bezala, 12 hilabeteko amenorrea ematen denean, menopausia diagnostikatu daiteke. Orokorrean, 45-55 urteen artean ematen da, baina populazioaren arabera aldatu daiteke; dietagatik, faktore kulturalagatik, etnia/arrazaren arabera³... Zehazki, gaur egun Espainian, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) datuen arabera, 24 milioi emakume baino gehiago daude, horietatik 8 milioi baino gehiagok 50 urte edo gehiago dituztenak, hau da, menopausia garaian daudenak⁴.

Postmenopausia goiztiarra aldiz, azken hilekoaren ondorengo 5 urteak dira. Obulutegiko funtzioaren behin behineko etena ematen da, eta hezur-masaren galera areagotzen da. Behin 5 urteak pasata, **postmenopausia berantiarra** dugu, bizitza amaierara arte luzatzen den etapa¹.

Aipatutako prozesu fisiologikoetan ematen den estrogeno eta progesterona hormonien produkzioaren gainbeheraren ondorioz, disfuntzio obarikoa ematen da. Aldaketa guzti hauek, hainbat sintoma ekartzen dituztelarik, hiru kategoria ezberdinetan sailkatzen direnak. Hain zuzen ere, 2017. urtean Espainian 45-54 urteen bitartean trantsizio menopausikoan orotariko arazoak izan zituzten 441.900 pertsona diagnostikatu ziren⁵.

- Berehalakoak: beroaldiak, zefalea, kontzentrazio arazoak, suminkortasuna...
- Epe ertainera: arazo urinarioak (frekuentzian, disuria), dispareunia, baginitisa...
- Epe luzera: gaixotasun kardiobaskularrak, osteoporosia²...

Hala ere, menopausiak ez dakartza soilik aldaketa fisikoak, izate psikosozialean ere eragiten du. Izan ere, kultura batzuetan menopausia negatiboki ikusten da, ugalkortasunaren amaiera eta emakumearen "baliagarritasuna" galtzea adierazten baitu, askotan feminitatearen galerarekin lotuz. Gainera, gantzaren banaketaren aldaketak, gorputz irudiaren aldaketak eta emankortasun galerak, inpaktu handia du emakumearen autoestimu eta auto-irudian².

Aldez aurretik aipatu moduan, sintomatologiaren agerpena faktore ezberdinek eragiten dute: etnia, arraza, dieta, aktibitate fisikoak, pisuak, bizitza estiloak^{3,6}.... Hortaz, emakume bakoitzaren menopausia prozesua desberdina da, zenbait sintomak prebalentzia handiagoa duten arren; osteoporosia, sintoma genitourinarioak, antsietatea, beroaldiak eta loaren nahasmendua^{2,6}.

Osteoporosia, hezur-kalitate dentsitatearen galera graduala da, estrogenoen sintesi murrizketaren ondorioz². Emakumezkoetan ohikoagoa da, batez ere postmenopausian, estrogeno endogenoen murrizketagatik, defizit estrogenikoa hezurren osaketaren defizitarekin erlazionatuta baitago⁷. Ondorioetako bat, hauskortasunak eragindako hausturak dira. Hauek, hilkortasuna, erikortasuna eta min kronikoa eragiten dute, dakarren kostu ekonomikoarekin. Izan ere, 50 urtetik gorako emakume menopausikoen hausturak, guztien %80 dira. Zehazki, 50 urtetik gorako emakume espainiarren %35i eta 70 urtetik gorakoen %52ari eragiten diela kalkulatu da. Hau da, 50 urtetik gorako emakume espainiar batek aldaka hausteko duen arriskua %12-16 artekoa da. Hala ere, badira zenbait faktore egoera areagotzen dituztenak; adina, dieta, masa muskularra, bizitza estiloa, arraza⁷...

Sintoma genitourinarioak, estrogenoaren sintesiaren murrizketaren ondorioz agertzen da, zenbait egituretan agertzen den estrogeno errezeptoreak gabezia geratzen direlako: baginaren epitelioa, traktu urinarioaren alde proximal eta distala, maskuria eta zoru pelbikoa eusten duten egiturak⁸. Ondorioz, mukosaren argaltzea, tolesturak eta epitelio baginalaren elastikotasuna galtzea eragiten du. Honela, glukogeno-ekarpen txikiagoa egiten zaio mikrobiota baginalari, eta beraz, laktobaziloak gutxitu egiten dira, pH-a (> 5) handitzen delarik. Honek, erraztu egiten du E. coli eta beste enterobakterio batzuen bidezko kolonizazioa³. Gauzak horrela, hurrengo sintomatologia eman daiteke: bagina lehortasuna, erretze sententzioa, dispareunia, asetze sexuala gutxitzea, autoestima galera, disuria, nikturia, gernu infekzioak eta inkontinentzia urinarioa⁸. Oro har, kalkulatu da emakume postmenopausikoen %50ak sindrome genitourinarioa jasaten duela, emakumeen bizi kalitatea baldintzatuz eta bizitza sexualari eraginez³.

Antsietateari dagokionez, kontuan izan behar dugu estrogenoak serotonina eta noradrenalina neurotransmisorearekin interakzionatzen duela, umorea erregulatuz. Beraz, estrogenoak estatus serotonergikoaren funtzioa erregulatzen duenez, urritzean, antsietate eta depresiorako arriskua handitzen da⁷. Haatik, agertu daitekeen sintomatologia anitza da: desesperazioa,

elikaduraren aldaketak, apetitu txikia, agitazioa, lo patroiaaren aldaketak⁹... Are gehiago, sintomatologia handiko trantsizio menopausikoa izaten duten emakumeek, antsietatea eta sintoma depresiboak izateko arrisku handiagoa dute^{10,11}. Hain zuzen ere, sintoma depresiboak izateko arriskua 2-4 aldiz handitzen da trantsizio menopausikoan, emakumeen % 24-33ari eraginez³.

Menopausiako **loaren nahasmendua**, gauean esnatzearekin lotuta dago, sintomatologiaren agerpena bortitzagatik. Izan ere, menopausian aldaketa biologikoak emateaz gain, lo arazo sortzaileen faktore nagusia ere bada, batez ere sintoma basomotore bortitzak dituzten emakumeetan¹². Era berean, menopausian ematen den hormona gainbeherak ere, lo hartzeko arazoak sor ditzake, progesteronak lo/erlaxazio prozesuetan laguntzen baitu⁹. Prebalentzia desberdina da aldi bakoitzean; perimenopausia hasieran, kalkulatu da emakumeen %40k lo egiteko zailtasunak dituztela. Kopuru hori % 46raino igotzen da trantsizio menopausiko berantiarrean. Beroaldiek asko eragiten dute loaren alterazio horietan, ohikoagoak baitira gauean³.

Azkenik, **sintoma basomotoreak** (beroaldiak eta gaueko izerditzeak barne) hormona estrogenikoen gainbeheraren ondorio dira, batez ere fase perimenopausiko eta postmenopausiko goiztiarretan¹³. Iraupena aldagarria da, segundo gutxitatik hasi eta 2-3 minutu arte iraun dezakete, palpazioak ere gehituz. Edozein unetan gerta daitezkeen arren, gauean ohikoagoak dira eta udan biziago bihurtzen dira. Hauek dira abiarazle ohikoenak: estresa, alkohol-kontsumo handia eta tenperatura-aldaketa bortitzak³. Nolanahi ere, sintoma basomotoreak, beroaldiak zein gaueko izerditzeak menopausiarekin zerikusi handiagoa dute beste sintomek baino, % 60-80ko prebalentziarekin. Zenbait faktoreren arabera baldintzatuta daude:

- Arraza: arraza afroamerikarrak sintoma basomotore bortitzagoak ditu.
- Obesitatea: arrisku faktorea da perimenopausian, baina ez postmenopausian.
- Tabakoa: erretzaileek sintoma basomotore gehiago izan ohi dituzte³.

Arestian aipatutako sintomak baretzeko tratamendua **hormona bidezko terapia ordezkatzaila** (HT) izan da, eraginkorra delako sintoma postmenopausikoak arintzen, zehazki, sintomatologia moderatu-larria dutenetan³. Indikazioen artean; sintoma basomotoreak, hezur galeraren prebentzioa, sintoma genitourinarioak, umorearen aldaketa nabariak eta hipoestrogenismo goiztiarrak dira¹².

Gaur egungo merkatuan, **hormona terapia** (HT) erabilienak³:

- Estrogeno eta gestagenoak: monoterapia estrogenikoa soilik histerektomizatuta dauden emakumeetan gomendatzen da. Izan ere, umetokia kontserbatzean, gestagena gehitzea gomendatzen da endometrioaren hiperplasia eta kartzinoma ekiditeko.

- Tibolona: Noretisteronatik eratorritako esteroide sintetikoa da, berez geldoa dena, baina bere metabolitoek ekintza estrogenikoak, pro-gestagenikoak eta androgenikoak dituzte. Estrogenoek ez bezala, endometrioaren gaineko efektu gutxi edo batere ez du eragiten.
- Konplexu estrogeniko ehundu-selektiboa (TSEC): BZA20/EEC prestakinak konjugatu gabeko estrogenoa eta bazedoxifenoa konbinatzen ditu, estrogeno-hargailuen modulatzailer selektiboa. Aukera bat da beroaldi larriak dituzten duten emakumeentzat.
- Prestakin konbinatuak; estrogeno eta gestagenoekin (THM konbinatua):
 1. Jarraitua: etenik gabeko tratamendua.
 2. Ziklikoa: 21 egunez jasotzen den tratamendua, ondoren 7 eguneko atsedena.
 3. Konbinatua: etengabeko estrogeno eta gestagenoen tratamendua.
 4. Sekuentziala: etengabeko tratamendua estrogenoarekin. Gestagenoak soilik zikloaren 2.fasean.
- Konbinatuak ez diren prestakinak (THM ez-konbinatua): Estrogeno eta progestagenoen administrazio bidea desberdina izan daiteke: aho bidez, era transdermikoan eta baginalean (levonorgestrelaren DIUa).

Aukeren artean hautatzeko, bakoitzaren eraginkortasun eta tolerantziaren arabera da. Guztiz individualizatu eta integrala izan beharko litzateke; historia klinikoa, gertakari kontrajarriak, bigarren mailako ondorioak, beroaldien intentsitatea/iraupena, sendagaiekiko sentsibilitatea, ondorio potentzialekiko tolerantzia.... Are gehiago, aukeratutako terapia, erregulariki birbaloratu beharko litzateke, epe luzerako erabilerari buruzko datuak urriak baitira¹⁴. Dena dela, estrogenoa eta progestina bidezko hormona-terapiak (HT) minbizia arriskua handitzeaz gain, arrisku kardiobaskularra ere areagotzen du. Hortaz, askok uko egiten diote hormona bidezko terapiari⁹.

Gainera, aipatzekoa da osasun sisteman emakumeek jasaten dituzten prozesu ez patologikoak medikatze tendentzia dagoela aztertu dela, zehazki amatasunean eta menopausian. Batez ere, sexu-genero dikotomian, emakumeek psikofarmako gehiago kontsumitzen dituztela ikertu da¹⁵.

Azkenaldian, ikertu diren albo ondorio hauek direla eta, emakume askok terapia ez-farmakologikoak bilatzen dituzte alternatiba moduan. Horien artean, faktore dietetikoak eragin handia dutela aztertu da, zehazki, landare-jatorriko dietak. Hauek, fitoestrogenoak dituzte; soja duten elikagaiak, estrogeno metabolitoak metabolizatze gaitasuna dutenak¹⁶.

Soja eta deribatuak, kalitatezko proteina eta gantz osasuntsuen iturri dira, eta gaixotasun kardiobaskular zein beroaldien gutxipenekin erlazionatu dira¹⁶. Nutrizionalki, esentzialak diren aminoazido guztiak barnebiltzen ditu, eta landare-jatorriko proteina bakarra da, bere aminoazidoen puntuazioaren arabera %100eko kalitatea duena. Are gehiago, landare-jatorriko

elikagai gisa, ez du kolesterolik. Karbohidrato gutxi eta zuntz nabarmena du, bai disolbagarriak zein disolbaezinak direnak. Bestelako lekaleekin konparatuz, sojak deribatuek, mikronutriente gehiago dituzte: burdina, B taldeko bitaminak, bitamina E, folatoak, fosforoa, potasioa, kaltzioa, magnesioa¹⁷...

Honez gain, soja aberatsa da hainbat konposatu bioaktibotan; diadzeina, genisteina eta gliziteina. Polifenol mota bat dira, jarduera antioxidatzailea dutelarik: ezinbestekoak direnak estres oxidatiboa eta hantura-prozesuak ekiditeko, postmenopausian areagotzen direnak. Isoflabonak, landareetan aurkitzen dira forma glukosidiko ez-aktiboan. Digestio-aparatutik igarotzean, metabolizazio prozesua ematen da, non glukosa galdu eta dagokion genina aktiboan askatzen den (genisteina eta daidzeina), edota metoxilo taldeak galtzen diren (forma isoflaboniko aktiboak)¹⁶.

Fitoestrogenoek, estradiolaren konposaketa kimiko antzekoa dute, hau da, estrukturaliki B-estrogenoen errezeptoreekin afinitatea dutela frogatu da, efikazia ia berdina izanik¹⁴. Forma erabiliena soja da; babarrun forman, tofua, tempeh, soja esnea... besteak beste. Esanak esan, egia da jakiaren arabera fitoestrogenoen eta isoflabonen kopurua aldatzen dela, kontsumitutako soja-proporzioaren arabera^{18,19}. Gauzak horrela, Asiako (bereziki Japoniako) emakumeek, sojan oinarritutako dieta jarraitzen dutenek, sintoma menopausiko gutxiago dituztela aztertu da: gaixotasun kardiobaskular gutxiago, bular/endometrio/obario zein koloneko minbizia tasa txikiagoa eta osteoporosi gutxiago. Honenbestez, sojarekiko interesa handitu da sintoma basomotoreen intzidentzia txikiagoarekin harremana duela ikusita. Izan ere, mendebaldeko herrialdeetan isoflabonen ingesta 1 mg/egun baino gutxiago da, Asiako herrialdeetan, aldiz, 20-50 mg/egun².

Ukaezina da beraz, menopausia garrantzi handiko etapa dela emakumeen artean³ aldaketa fisiko eta psikologiko ugari dakarrena, familia/gizarteari nabarmen eragiten diena². Bestalde, hormona bidezko terapia (HT), tratamendu eraginkorra dela trantsizio menopausikoan azaltzen den sintomatologia baretzeko, baina zenbait emakumeen kasuan, HT-ren arriskuek onurak gaintzen dituzte, edota ez dute tratamendu farmakologiko baten menpe bizi nahi. Hortaz, ezinbestekoa da tratamendu alternatiboak eskaintzea, arrisku potentzial horiek desagertarazteko^{20,21}. Beraz, literaturaren errebisio bibliografiko kritiko honen helburua dieta bidezko fitoestrogenoen eraginkortasuna zehaztea da, klimaterioan ematen diren beroaldiak, osteoporosia, antsietatea, sintoma genitoruinarioak eta loaren asaldura baretzeko.

HELBURUA

Literaturaren errebisio bibliografiko kritiko honen helburua dieta bidez hartzen diren fitoestrogenoen eraginkortasuna zehaztea da, klimaterioan ematen diren beroaldiak, osteoporosia, antsietatea, sintoma genitoruinarioak eta loaren asaldura baretzeko.

METODOLOGIA:Diseinu mota:

Ezarritako helburuari erantzuteko, literatura zientifikoaren berrikusketak kritikoa burutu da. Honetarako, Gasteizko Erizaintza Eskolako Gradu Amaierako Lanen Batzordeak ezarritako irizpideak jarraituko dira²².

Bilaketa estrategia:

Prozesuarekin hasteko, lehenik eta behin helburua finkatu da, bertatik kontzeptu nagusiak atera direlarik: Fitoestrogenoak, Klimaterioa, Menopausia, Beroaldiak, Osteoporosia, Antzietatea, Loaren nahasmendua eta Sintoma genitoruinaroak.

Era berean, terminoen sinonimoak bilatu dira lengoia naturalean, ingelesez zein gazteleraz; jarraian, lengoia kontrolatura itzuli eta honako deskriptoreak erabili dira (datu-base bakoitzaren arabera, alegia): *Menopause, Climacteric, Phytoestrogen, Soy Food, Diet Vegetarian, Soybeans, Eating, Female Urogenital Disease, Hot Flash, Sleep Wake Disorder, Anxiety eta Osteoporosis (1. eranskina)*.

Deskriptoreak eskuratuta, bilaketa ekuazioak osatu eta konbinatu dira hainbat datu-baseetan AND/OR boleanoak erabiliz: Medline OVID, TripPRO, Cochrane, Cinahl, EMBASE, WOS, eta CUIDEN (2. eranskina). Aipatutakoetan ez ezik, eskuzko bilaketa ere burutu da, *RNAO, NICE, American Journal of Obstetrics and Gynecology, BMC eta Enfermería Clínica* aldizkarietan.

Bilaketa prozesuari ekiteko kanporatze- eta barneratze- irizpideak zehaztu dira;

Barneratze irizpideak

- **Hizkuntza:** Gaztelaniaz zein ingelesez argitaratutako artikulak.
- **Eskuragarritasuna:** "Full text" lortu ahal izan diren artikulak.
- **Lagina:** Premenopausian, menopausian zein postmenopausian dauden emakumeak. Klimaterioan, bizitzaren aldi emankorretik, aldi ez-emankorrera igarotzeko prozesuan daudenak.
- **Interbentzioa:** Fitoestrogenoak dietaren bidez kontsumitzen diren interbentzioak.
- **Argitalpen data:** 2015etik aurrerako artikulak, informazio eguneratuena izateko.
- **Artikulu mota:** Entsegu klinikoak, eraginkortasuna aztertzeko. Hauetan, interbentzio eta kontrol taldeak daude, fitoestrogenoak kontsumitzearen/ez kontsumitzearen arteko ezberdintasunak adierazteko.

Kanporatze irizpideak

- **Kanporatutako populazioa:** Adin emankorreetan daudenak eta jada postmenopausia berantiarrean dauden emakumeak.
- **Interbentzioa:** Suplementu zein farmakoen bidez emandako fitoestrogenoak barneratzen dituzten artikulua.

Literaturaren hautaketa kritikoa:

Aipatutako datu-baseak arakatu ostean eta honi, eskuzko bilaketaz aurkitutako artikulua gehituz, 2015etik aurrera argitaratutako 446 artikulua eskuratu dira. Hautaketa prozesuarekin jarraituz, artikulua sailkatzeko hiru fase burutu dira: lehenengoan, izenburuak eta laburpena irakurrita hautaketa egin da, errepikatutako 107 artikulua deuseztatuz eta 227 artikulua kanporatuz, ezarritako helburuarekin bat ez datozelako edota barneratze/kanporatze irizpideak betetzen ez dituztelako. Ondoren bigarrean, 112 artikulua testu osoan eskuratu, irakurketa osoa burutu da. Horietatik, 95 deuseztatu dira; helburutik urruntzen zirelako, interbentzioa dietaren bitartez egiten ez zutelako zein artikulua ez zientifikoak zirelako, orotara 17 artikulua ditugularik.

Azkenik, hirugarren fasean, 17 artikuluen irakurketa kritiko sakona burutu da, hauen kalitatea aztertuz eta erabilgarritasuna zehazteko (4. eranskina). Horrela, 3 artikulua kanporatu dira, behin-betiko 14 artikulua zientifiko hautatuz. Prozesua fluxu-diagraman laburturik dago (3. Eranskina).

Artikuluen analisisa:



Behin irakurketa kritikoa burututa, 14 artikuluen laburpen taula eraiki da (5. eranskina) hurrengo informazioa azalduz: artikuluen izenburuak, egileak, argitalpen urtea, herrialdea, helburua, diseinua, interbentzioa eta emaitzak/ideia nagusiak. Ariketa hau, ikerketa bakoitzaren ikuspegi orokorra izateko eta artikuluen analisisa errazteko helburuarekin burutu da. Azkenik, emaitzak era egituratuan adierazteko, kategoria ezberdinetan antolatu dira: beroaldiak, osteoporosia, sindrome genitourinarioa, antsietatea eta loezina, 6. eranskinean adierazitako moduan.

EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Berrikusketa honetan emaitzak eta eztabaida atalean, aukeratutako 14 artikuluen ezaugarriak eta nondik norakoak aurkeztuko dira.

Artikulu motari dagokionez, 14 ausazko entsegu kliniko dira, horietako bat ausazko ikerketa pilotoa izanik. Argitalpen datari erreparatuz, 2015-etik 2023-ra bitartekoak dira (Irudia 1: argitalpen urtea). Jatorriari dagokionez; (Irudia 2: artikuluen jatorrizko herrialdea).

Orokorrean, parte hartutako populazioa, 40-65 urte bitartekoa da. Peripenopausiatik postmenopausia goiztiarrera igarotzeko adin tartea, alegia. Hala ere, Trius M, et al²³-en artikuluan, adina 70 arte zabaltzen da eta Tranche S, et al²⁴-en artikuluan aldiz, mugarik jartzen, 45 urte baino gehiagoko emakume guztiak hautatzen baitira.



Lortutako emaitzak, tresna ezberdinen bidez neurtu dira, horien artean: **Kupperman indizea**, **MENQOL eskala**, **MRS eskala**, **Greene eskala klimaterikoa** (7. eranskina). Guzti hauek, sintoma menopausikoak neurtzeko balio dute, balidatutako eskala ezberdinak baitira guztiak eta hortaz, emaitzen eztabaidarako subkategoria gisa hartu dira, errepikatzen diren eskalak multzokatuz. Hona hemen eskala bakoitzaren zehaztasunak:

- **Kupperman indizea²⁵**: 11 item-eko eskala, non parametro bakoitza 1etik 3ra puntuatzen den bakoitzaren sintomatologiaren arabera. Emaitzak, 3 taldetan sailkatzen dira; sintomatologia arina (15-20), moderatua (20-35) ala larria (+35 puntu). Kontuan hartutako parametroak: sintoma basomotoreak, parestesia, loezina, urduritasuna, tristura, bertigoa, ahulezia, artralgia edo mialgia, zefalea, palpitzazioak eta inurriak sentitzearen sententzioa (*Formication*).
- **MENQOL eskala^{26,27}**: 29 galdera dira 4 domeinutan sailkatuz: basomotoarea (1-3 galderak), psikosoziala (4-10 galderak), fisikoa (11-26) eta sexuala (27-29). Sintomak presente ala ez dauden baloratzen da, eta presente badaude, zein gogaikarriak diren 0tik (ez da gogaikarria) 6ra (oso gogaikarria) bitarteko eskalan.
- **MRS eskala^{28,29}**: 11 galdera eta 3 domeinu ezberdin dituen eskala; somatikoa (1-4 galderak), psikologikoa (5-8 galderak) eta sintoma urogenitalena (9-11 galderak). Gutxieneko puntuaketa 0 izanik eta gehiengoa 44, hiru kategoria desberdinetan sailkatzen da emaitza; sintomatologia ahula (0-11 puntu), erdiko sintomatologia (12-23

puntu), sintomatologia astuna (24-33) eta sintomatologia oso astuna (34-44 puntu).

- **Greene eskala klimaterikoa**^{30,31}: 21 item-eko eskala, zeinetan domeinuka zatikatzen diren galderak: eremu psikologikoa, somatikoa eta basomotorea. Aipatutako bakoitzari 0tik 3rako puntuaketa ematen zaio. 0 zenbakiak sintomaren falta adieraziz, eta 3, sintomaren intentsitate gorena. Emaiza totala: 0 (sintomarik gabe), 1etik 14ra (sintoma minimoak), 15etik 20ra (sintoma arinak), 21etik 35era (sintoma moderatuak) eta 35etik gora (sintoma larriak).

Gauzak horrela, informazioa egoki antolatzeko eta ulergarria izateko helburuarekin, aipatutako sintoma bakoitzean fitoestrogenoak duten eragina aztertuko da.

- **Beroaldietan**

Beroaldiak, menopausian agertzen den sintomatologia ezagunena den heinean, eskala guztietan aztertzen da. Hortaz, bibliografia gehienak beroaldien inguruan jarduten dute. Zehazki, Greene eskala klimaterikoan eta MENQOL eskalan, aztertzen den domeinu espezifikoa da. MRS eskalan, domeinu somatikoan neurtzen dute eta Kupperman Indizean, galdera bat sintoma basomotoreei bideratuta dago.

- **MRS eskala**

Arakatutako 4 artikuluk MRS eskala erabiltzen dute. Hauen artean, Cetisli N, et al²⁸-ren kasuan, eguneroko liho hazien kontsumoak sintoma menopausikoetan duen eragina aztertzen du, hormonaterapiarekin konparatuz. 3 interbentzio talde bereizten ditu; 5g liho hazi hartzen dituztenak 12 astez (E1), 5g liho hazi eta astean behin menopausiari buruzko hezkuntza jasotzen dutenak 12 astez (E2) eta hormonaterapiarekin tratameduan daudenak (E3). Eraginkortasunari dagokionez, $p=0,00$ dela jartzen duen arren, artikulua ez du zehazten hiruretako zein interbentziori dagokion eraginkortasun hori. Baina artikulua lantzen duen gaiagatik ondorioztatu daiteke, liho haziak kontsumitzea eraginkorra dela sintoma basomotoreak baretzeko.

Aldiz, Padmapriya S, et al 2020²⁷-ek eta Tranche S, et al²⁴-ek, interbentzioa soja esnearekin burutzen dute. Kasu honetan, lehenengoak etxean egindako 200ml soja esne 6 astez kontsumitzeak MRS galdetegian aldaketa esanguratsua eragiten duela atzertzen du, $p=0,044$. Tranche S, et al²⁴-en kasuan, interbentzioa Espainian saltzen den esne soja marka batekin egiten du (*ViveSoy*). Hala ere, ikerketa honetan ez da inolako adin mugarik jartzen, 45 urte baino gehiago duten emakume guztiak hartzen direlarik. Hauek, egunero 500ml soja esne kontsumitzen dute, 15g proteina eta 50mg isoflabona suposatzen zduena. 12 asteko interbentzioaren ostean MRS galdetegiaren emaitzak %18,1 murrizten dira ($p= 0,005$) eta hortaz, ondorioztatzen da 12 asteko interbentzioa eraginkorra dela beroaldiak baretzeko, denborak eragina mantentzen delarik.

Azkenik, Trius M, et al²³-ek, alkoholdun eta alkoholgabeo garagardoarekin burutzen du interbentzioa, fitoestrogeno iturri aberatsa izan daitekeelako (biek dute fitoestrogeno kontzentrazio bera). 3 interbentzio talde sailkatzen dira 40-70 urte bitarteko emakume

menopausikoekin. E1 taldeak, egunero 14g etanol kontsumitzen du (330ml alkoholdun garagardoa) eta E2 taldeak alkoholik gabeko 660ml. Hala ere, aipatu beharra dago, interbentzioa hasi aurretik, taldeen arteko desberdintasun esanguratsuak daudela; FSHaren kasuan $p=0.006$, alkohol kontsumoaren kasuan $p=0.025$ partehartzaileek kontsumitzen zuten alkohol kantitatea estatistikoki esanguratsua da bi taldeen artean) eta depresioa $p=0.013$. Taldeak eguneroko alkohol kontsumoaren arabera egin dira, batean eguneroko bizitzan alkohola kontsumitzen dutenak jarritz eta bestean, kontsumitzen ez dutenak. Hori dela eta, eta aurrekoarekin erlazionatuta egon daitekeenaren ustean, alkoholdun garagardoa zein alkoholik gabeko garagardoa jaso duten emakumeetan, sintoma klimaterikoak murriztu diren arren, ez da inolako aldaketarik nabaritu sintoma urogenital zein somatikoetan. Baina, alkoholik gabeko garagardoaren eta kontrol taldeen artean MRS eskalako emaitzetan aldaketa esanguratsuak ikusi dira ($p=0.033$).

- Kupperman indizea

Aukeratutako 2 artikuluk, Kupperman indizea erabiltzen dute fitoestrogenoen eraginkortasuna neurtzeko, biek soja/zereal barriten bitartez. Husain D, et al²⁵-i dagokionez, egunero 33g soja barrita kontsumitzea proposatzen zuen, 54mg isoflabona dituen 8 astez. Ondorioz, Kupperman indizeko parametrotan aldaketak antzeman dira; beroaldien parametroa 2.93 ± 2.76 puntura jaisten da ($p<0,001$), gaueko izerditzeak murrizten dira $0,70 \pm 0.65$ -ra ($p<0,001$), palpitzioak murrizten dira 0.20 ± 0.40 -ra ($p<0,001$). Hortaz, beroaldiak murrizteko eraginkorra dela ondorioztatu dezakegu. Aldiz, Frigo M, et al³²-ek, 63g-ko Soja eta liho hazidun zereal barrita bat (arroza eta kanelarekin), interbentzioaren amaieran beroaldien parametroan aldaketa esanguratsua eragiten duela $p=0,001$.

- Greenee eskala klimaterikoa

Furlong O, et al³¹-en kasuan, *A/pro* markako soja esneak dosi ezberdintean 12 astez kontsumituz, sintoma menopausikoetan duen eragina aztertzen du, E1 interbentzioko taldekideek 10mg isoflabona (dosi baxua), E2 taldekoek 35mg (erdiko dodia) eta E3 taldekoek 60mg (dosi altua) kontsumituz. Baina, egindako ikerketan ez da ezberdintasun esanguratsurik adierazten. Hala ere, interbentzioa hasi baino lehen aztertzen diren sintoma basomotoeen intentsitatea aztertuz gero, dosi ertaineko taldean aldaketa esanguratsua ematen da ($p=0,001$).

- MENQOL eskala

Azkenik, 5 artikuluk MENQOL eskala erabiltzen dute. Horietatik, 3 artikuluk soja esnearekin burutzen dute interbentzioa. Nourozi M, et al³³-ek 57ko laginarekin, interbentzio taldeak egunero 500ml soja esne kontsumitzea planteatzen du. Emaitzei dagokionez, domeinu basomotoean bi taldeen arteko ezberdintasuna: $p=0,001$ koa da. Hala ere, aldaketaren ehunekoa ateratzerakoan (-9.86 tik -22.82 ra) $p=0.501$ da. Hortaz, hobekuntza ematen den arren, ez da esanguratsua. Ikerketaren ustez, interbentzioaren denbora luzatuz gero, emaitzak hobetuko lirarteke. Gainera aipatzekoa da, bai interbentzio zein kontrol taldekoek egunero 500mg-ko kaltzio-D kapsulak hartzen dutela. Honek sintoma menopausikoetan duen eragina ez aipatzeaz gain, ez da azaltzen suplementu honen kontsumoaren arrazoia eta beraz, emaitzak ezingo lirarteke estrapolatu. Padmapriga S, et al 2018²⁹-ren ikerketan berriz, egunero etxean egindako 200ml

soja esne 6 astez kontsumitzea, aldaketa esanguratsuak eragiten ditu MENQOL eskalan interbentzio eta kontrol taldeen artean: $p=0.001$ baino txikiagoa izanik, 46 pertsonako lagina duen arren. Autore berak, bi urte beranduago interbentzio berdina burutzen du lagina 116ra handituz. Padmapriya S, et al 2020²⁷-ek oraingoan ere, sintoma basomotoreetan emaitza esanguratsuak lortzen dira, $p<0.001$ izanik. Gainera, interbentzio taldekoei, denboran zeharreko jarraipena egiten zaie, eta hemen ere, post-testean zein jarraipenean $p<0.001$ da, erainkortasuna azpimarratuz.

Beste bien interbentzioari dagokionez, egunero 86g soja kontsumitzean datza. Barnard N, et al 2021²⁶-en kasuan, 34 pertsonako interbentzioa burutzen du, non 86g soja egunero kontsumitzeaz gain, gantz gutxiko dieta beganoa jarraitzen duten, astean behineko hezkuntzarekin. Gainera, *MyLuna* mugikor aplikazioarekin, egunean zehar izaten dituzten beroaldiak erregistratzen dituzte. Ezinbestean, MENQOL eskalan sintoma basomotoreen domeinuan, aldaketa esanguratsuak eragiten dituela aztertu dute $p<0,001$ delarik. *MyLuna* mugikor aplikazioan identifikatzen diren beroaldiei dagokionez ere, aldaketa esanguratsuak aurkitzen dira taldeen artean $p=0.04$ izanik. Hala ere, garrantzitsua da aipatzea interbentzio eta kontrol taldeen artean desberdintasunak daudela, zehazki emakumeek menopausian daramaten denboran $p=0,044$. Egile berberak, bi urte beranduago, interbentzio berdina burutzen dute, honetan Barnard N, et al 2023³⁴-ek, 71 kide lortzen ditu. Kasu honetan ere, sintoma basomotoerean hobekuntza esanguratsuak nabaritzen dira $p=0.004$ izanik. Baina, artikulua honetan, kontrol eta interbentzio taldeen adin desberdintasuna esanguratsua da, $p=0,034$ delarik. Hori dela eta, bi interbentzio hauen emaitzak ezingo lirarteke haien osotasunean eraginkor gisa ulertu.

- **Sintoma genitourinarioetan**

Sailkatutako eskalen artean soilik 2 eskalatan jarduten da sintoma genitourinarioez; MRS eskalak domeinu espezifikoa eskeintzen dio (sintoma urogenitalak, alegia). Aldiz, MENQOL eskalan, alderdi sexualean sartuko litzateke sintoma genitourinarioen azterketa.

- **MRS eskala**

Hasteko, Tranche S, et al²⁴-en ikerkuntza espainiarrean, 12 asteko interbentzioaren ostean (*ViveSoy*) MRS galdetegiaren emaitzak %18,1 murrizten dira ($p= 0,005$), sojaren kontsumo erregularrak sintoma urologikoak murriztuz %21,3an ($p= 0,019$). Trius M, et al²³-i dagokionez, MRS eskalan izandako emaitzetan aldaketa esanguratsuak adierazten diren arren ($p=0.033$), ez da inolako aldaketarik nabaritu sintoma urogenitaletan.

Padmapriya S, et al 2018²⁹-ek aurkeztutako datuetan, ondo adierazten da interbentzio eta kontrol taldeen arteko alde handia dagoela ikerketa burutu ostean ($p=0.044$) MRSren puntuazioari dagokionez, soja esnearen eraginkortasuna adieraziz orokorrean sintoma menopausikoak murrizteko. Cetisli N, et al²⁸-en ikerketan ostera, lau talde esperimentalak homogeenak direla egiaztatzen da; taldeen artean ez baitago ezberdintasunik, taldeak homogeenak direla esan daitekeelarik ($p > 0.05$). Interbentzioari dagokionez, MRS eskalaren puntuazioen batez bestekoen arteko aldea estatistikoki esanguratsua da ($p < 0.05$). Emakumeen

sintoma menopausikoak (sintoma genitourinarioak barne) gutxitzen dira 3 talde esperimentaletan, %8,7an 1. talde esperimentalean, % 9,8an 2.talde esperimentalean eta % 10an 3. talde esperimentalean.

- MENQOL eskala

Lehenik, Nourozi M, et al³³-ek 2015ean burututako ikerketan soja esnearen eraginkortasuna berresten du. Izan ere, MENQOL eskalako domeinu sexualean aldaketa esanguratsuak adierazten dira interbentzio eta kontrol taldetan: $p=0,018$.

Barnard N, et al 2021²⁶-en kasuan sintoma sexualetan aldaketa esanguratsuak lortzen dira egindako dieta interbentzioaren ostean $p=0,0103$ izanik. Hala ere, behin eta berriro agertu dira ikerketa honek dituen hainbat alborapen; kontrol zein interbentzio taldeen artean aldaketa esanguratsuak daudela, bitamina B¹²-aren erabilera, interbentzio gisa hezkuntza erabiltzea...

Barnard N, et al 2023³⁴-ek aldiz, domeinu sexualean interbentzio hasierako MENOQOL eskalan $p= 0.63$ dela adierazten du. 12 asteko interbentzioa burutu ostean, $p=0.03$ da. Dena dela, argi geratu behar da diseinuak bere mugak dituela; ikerketa 12 astera mugatzen da, eta parte-hartzaile gehienek gutxienez unibertsitateko ikasketak dituzte (hau da, hezkuntza maila altua dute). Are gehiago, parte-hartzaileak itsutzea ezinezkoa da dieta bidezko probetan eta horregatik, ikerketak interbentzio konbinatu bat probatzen du. Izan ere, paziente bakoitzaren dietaren zehaztasunik ezak, elikagai anitzen kontsumoa eragiten du, pertsona batetik bestera alda daitekeena. Honek bete-betean eragiten du sintoma menopausikoen agerpenean. Interbentzio honen bitartez ezin baitugu ziurtatu ikertutako paziente guztien dieta antzekoa denik.

Padmapriya S, et al 2018²⁹-ren azterlanean berriz, ondorioztatzen da soja esnea eraginkorra dela MENQOL eskalaren puntuazioa murrizteko. Alabaina, ondorio ahula erakusten du eremu urogenital eta sexualean, adierazgarria ez dena, alegia (pre-testean 2.18 +/- 0.66 eta post-testean 2.04 +/- 0.72). Ondorioz, ikerketan azterlan gehiagoren beharra azpimarratzen da, lagin-tamaina handiagoarekin. Padmapriya S, et al 2020²⁷-ren hurrengo azterlanean, domeinu sexualean emaitza desberdinak lortzen ditu: interbentzio eta kontrol arteko taldeak Mann Withney-ren bitartez *pretest*, *post-test* eta *post-hoc* neurketak burutzen ditu, emaitzak hauek direlarik; $p=0.33$, $p=0.924$ eta $p=0.169$. Friedman ANOVA frogan aldiz, interbentzio taldean $p=0.001$ baino txikiagoa dela ondorioztatzen du, interbentzioaren erabilgarritasuna adieraziz.

- Osteoporosian

Analizatutako artikuluen artean, 2 artikuluk jarduten dute zehazki osteoporosiaren inguruan. Izan ere, beste artikuluetan eskalen bitartez neurtzen da fitoestrogenoen inpaktua, baina batek ere ez du barneratzen osteoporosiaren irizpidea. Erlazionatutako sintomatologia kontuan hartzen duen arren (Kupperman indizean esaterako; mialgia, ahultasuna...), ezin dezakegu ondorioztatu osteoporosiaren ondorio direnik.

Li L, et al³⁵-en kasuan, egunero 100g tofu lehortu kontsumitzeak emakume txinatar postmenopausikoen hezur-mineralaren dentsitatean duen eragina ebaluatzen du, X izpien bidezko absorptiometriaren bidez; bizkarrezurrean zein hezur femoralean. Bizkarrezurraren

kasuan, denbora aurrera joan ahala, tofuaren eragina areagotuz doa ($p=0.001$ baino txikiagoa), baita denboran zehar ere ($p=0.027$). Hezur femoralean aldiz, hobekuntzak eragiten dituen arren, ez da aldaketa esanguratsurik aurkitzen ($p=0.82$). Eta denboran zehar ere ez ziren aldaketa esanguratsurik ikusi ($p=0.62$). Hala ere, bizkarrezurrean duen eragina ikusita, tofuaren eguneroko kontsumoa hezur galeraren prebentzioarekin lotzen dute.

Aldiz, Sathyapalan T, et al³⁶-ek burututako artikuluan, balore analitikoak neurtuz, hezurren apurketa markatzaileak adierazten dituzten faktoreak zehazten dira. Ondoren, soja barrita bat (15g proteina eta 66mg isoflazona dituena) egunero 6 hilabetez kontsumitzeak zer nolako eragina duen aztertzen dute. Kasu honetan, analizatutako balore analitikoetan, bCTX eta P1NP identifikatu dituzte apurketa-markatzaile gisa. Hezurretako ordezkari markatzaileak (BTM) haustura-arriskuaren biomarkatzaileak dira, terapiak osteoporosian dituen ondorioak diagnostikatzeko eta ebaluatzeko erabili direnak, eta hezurretako erresortzio-markatzaileak (I motako kolagenoa, beta C-telopeptido [bCTX] erretikulatua) eta hezur-eraketako markatzaileak (prokolageno-N-propeptido [P1NP] dituzte). bCTX-aren kasuan, soja barrita kontsumitzen hasi eta 3 hilabeteetara, plasman agertzen diren baloreak murrizten direla aztertzen da ($p=0,01$), eta 3 hilabeteetatik 6 hilabeteetara ere, murrizten jarraitzen dute ($p=0,05$). P1NP-ren kasuan, soja barrita kontsumitzen hasi eta 3 hilabeteetara plasmako baloreak murrizpen esanguratsurik ez duten arren ($p=0,92$), 3 hilabeteetatik 6 hilabeteetara ematen den murrizpena esanguratsua da ($p<0.01$). Hau da, sojaren kontsumoa denboran zehar mantentzea eraginkorra da hezur-apurketa markatzaileak murrizteko.

- **Loaren asalduretan**

Loezinari erreparatuz, azpisailkatutako eskala guztietan agertzen da forma ezberdinetan: Kupperman indizean galdera espezifikoa, Greene eskala klimaterikoa eta MRS eskalan domeinu somatikoan eta azkenik, MENQOL eskalan domeinu fisikoan. Gauzak horrela, hona hemen izandako emaitzak:

- **MRS eskala**

Eskala honetako lehen lau galderek, domeinu somatikoaz aztertzen duten heinean, loezinari inguruko galdera espezifikoa dira. Tranche S, et al²⁴-ek planteatzen duen eguneoroko 500ml soja esne kontsumoan zein, Padmaprya S, et al 2018²⁹-k proposatutako 200ml soja esne kontsumoan aldaketa esanguratsuak antzematen dira, lehenengoan interbentzioa 12 astez eta bigarrean, 6 astez burutzen den arren. Gainera, Tranche S, et al²⁴-ek aldaketa honen eragina denboran zehar luzatzen dela berresten du. Are gehiago, Trius M, et al²³-ek alkoholdun/alkoholik gabeko garagardoak dituzten fitoestrogenoek eragin dezaketen onura ikusita, alkoholdun garagardo zein alkoholik gabeko garagardo jaso zuten emakumeetan, sintoma klimaterikoak murrizten direla ondorioztatzen du ($p=0,0033$). Hala ere, datu hauek ez dira guztiz estrapolagarriak, interbentzio taldea ez baitago ausaz burututa. Are gehiago, haien bizi estilo eta ohituren arabera burutzen da; egunero alkohola kontsumitu ohi dutenak alkoholdun garagardoaren taldean eta kontsumitzen ez dutenek/kontsumo oso murrizta egiten dutenek alkoholik gabeko taldean kokatuz. Berdina gertatzen da Cetisli N, et al²⁸-en kasuan,

$p=0,00$ dela jartzen duen arren, ez da zehazten testuan zehar ezta taulen bitartez, burututako zein interbentziok eragin duen emaitza hori (3 talde ezberdin baitaude; liho haziak, liho haziak eta hezkuntza, hormonaterapia). Hezkuntza jaso zuten emakumeek hobekuntza nabariagoa izan duten arren, ezin da zehaztu desberdintasun hori esanguratsua denik.

- Kupperman indizea

Alde batetik, Husain D, et al²⁵-ek 61eko laginarekin, 33g soja duen (54mg isoflabona) barraita baten 8 asteko kontsumoaren ondorioz, loezinaren parametroa 1.27 +/- 1.21 puntura jaisten dela azaleratzen du ($p<0,001$ izanik). Era berean, nekea modu esanguratsu batean murrizten da $p<0,01$ delarik. Bestetik, Frigo M, et al³²-ek, 63g-ko soja eta liho hazidun zereal barraita baten eragina frogatzen du 43 emakume peri- eta post-menopausikoetan. Kasu honetan ere, murrizpen esanguratsua du ($p=0,017$), baina nekean ez da inolako aldaketarik ematen ($p=0,233$).

- Greenee eskala klimaterikoa

Simpson E, et al³⁰-ek dosi ezberdinetako soja esne kontsumoak sintoma klimaterikoen murrizpena eragiten duela ondorioztatzen saiatu den arren, sintoma somatikoak/fisikoak aldarazteko gaitasunik ez duela aitortu behar da ($p=0,210$). Hala ere, aipatzeko da, ikerketa menopausiatik 3 urte edo gehiago igarotako emakumeekin frogatzen dela; sintoma menopausikoak leunagoak direnean, alegia. Haatik, hurrengo proposatzen du: ikerketa perimenopausiatik postmenopausia goiztiarrera igarotzeko tartean egin izan balitz, loezina murrizteko gaitasuna izango luke. Bestalde, Furlong O, et al³¹-ek egiten duten saiakeran aldiz, dosi ezberdinetako soja esneak (*Alpro*), ez du interbentzio ez kontrol taldeetan inolako eraginik loezinari dagokionez, dosi altueenetan ere ez.

- MENQOL eskala

Barnard N, et al²⁶-ek 2021ean burutzen duen ikerketan, egunean 86g soja kontsumitzeak, gantz gutxiko dieta beganoa jarraitzearekin batera, loezina murrizteko baliagarria dela adierazten du $p=0,0015$ izanik. Hala ere, ikerketa honen inguruan zenbait gauza aipatu behar dira; alde batetik 34 pertsonako lagina duela, murrizta dena, eta gainera, haien artean menopausian daramaten denbora estatistikoki esanguratsua da ($p=0,044$). Bestalde, interbentzio taldeko 17 kidek, B¹² bitamina hartzen dute egunero suplementu gisa, ez dena ondo argitzen zein ondorio dituen eta zelan eragiten duen ikerketan. Autore berdinak bi urte beranduago, Bernard N, et al 2023³⁴-ek, ikerketa berdina burutzen du lagina 71ra handituz. Bertan, beste aldagai bat sartzen du interbentzio taldean bitaminez gain; hezkuntza. Oraingoan, sintoma fisikoetan ematen den aldaketa ere esanguratsua den arren ($p=0,01$), kontuan hartzeko hainbat aspektu azpimarratu behar dira; interbentzio eta kontrol taldeen arteko adina esanguratsua dela ($p=0,034$) eta oraingoan ere ez dela zehazten B¹² bitaminaren kontsumoak nolako eragina duen.

Ildo beretik jarraituz, Padmapriya S, et al 2018²⁹ autoreak ere antzeko zeozer egiten du. Burutzen duen lehen ikerketan MENQOL eskalan ematen den aldaketa esanguratsua den arren ($p<0.001$), lagin oso murriztua izateaz gain ($n=46$), etxean egindako soja esne bat da. Honek, oso zaila egiten du fitoestrogenoen dosi zehatza kalkulatzeko eta alborapen nabari eragin ditzake. 2 urte beranduago Padmapriya S, et al 2020²⁷-ek lagina 116ra handitzen du. Berriz ere,

etxean egindako 200 ml soja esne 6 astez kontsumitzeak duen eragina aztertuz. Kasu honetan, denboran zehar jarraipena egiten zaie, eragina konfirmatzen duelarik $p < 0,001$.

Amaizteko, Nourozi M, et al³³-ek hurrengo planteatzen du: egunero 500ml soja esne kontsumitzea, kaltzio-D kapsulak egunero hartzearekin batera (500mg). Hala ere, interbentzio honek ez du inolako eraginik domeinu fisikoan $p=0,172$. Batik bat, ez da adierazten kaltzioa isolaturik kontsumitzeak zer eragin dituen, hortaz, ezin dezakegu ondorioztatu interbentzioak zergatik ez duen funtzionatu; kaltzioaren kontsumoagatik edota fitoestrogenoen kontsumoa nahikoa ez izateagatik izan daitekeelako.

- **Antsietatean**

Alderdi emozionalari dagokionez, antsietatearen inguruan 3 eskala desberdinek dihardute.

- Kupperman indizea

Husain D, et al²⁵-en kasuan, sojazko interbentzioa burutu ondoren, sintoma depresiboen intentsitatea murrizten da talde esperimentalean, kontrol taldearekin konparatuz eta *chi-square* bidez egiaztatuta ($p < 0,001$). Are gehiago, ezin da ukatu soja isobonoen kontsumoak sintomatologiaren maiztasun eta intentsitatean desberdintasunak eragin ez dituenik. Bestalde, Frigo M, et al³²-i dagokionez, 90 eguneko elikadura interbentzioaren ostean urduritasun/antsietatea aldagaian $p=0,1$ lortzen da, emakume peri- eta post-menopausikoetan eraginkorra ez delarik. Hala ere, aztertutako aldagaietan, interbentzio taldean 90 eguneko esku-hartzearen ostean, sintoma menopausikoen puntuazioa nabarmen murrizten da emakume perimenopausiko (CI % 95: -28,95; -1,35) eta postmenopausikoetan (CI % 95: -33,68; -4,99). Gainera, ikusi da 51 eta 64 urte bitarteko emakumeek batez beste 1,36 puntu gehiago dituztela sintoma klimaterikoetan, 40 eta 50 urte bitarteko emakumeak baino, estatistikoki emaitza esanguratsua delarik (% 95eko CI: 1,09; 2,53).

- Greenee eskala klimaterikoa

